

Formakuntzan dauden doktorego-aurreko ikerkuntza pertsonalaren estatutuaren aldaketa

Gaur BOEn argitaratu da ([aldaketa](#), [jatorrizko testua](#)) Formakuntzan dauden doktorego-aurreko ikerkuntza pertsonalaren Estatutuaren aldaketa. Moldaketa honek zenbait hobekuntza jasotzen ditu; besteak beste, kontratua amaitzean kalte-ordaina jasotzeko eskubidea, tesia egin ondoren kontratua mantentzeko aukera (lau urteak agortu ez badira), eta kontratuaren iraupenaren zenbaketa eten dezaketen egoerak zabaltzea. Aldaketa horiek kontratu berriei zein indarrean dauden kontratuei aplikatu dakizkieke.

Aldaketa aipagarriak langileen ikuspuntutik:

- Kalte-ordaina kontratua amaitzean: Iraupen jakineko kontratueterako aurreikusitakoaren pareko kalte-ordaina ezartzen da, [Langileen Estatutuaren Legearen](#) testu bateratuan 49. artikuluaaren arabera.
- Doktorego ondoko orientazioa: Doktoretza lortu eta hamabi hilabetera arteko doktoretza ondoko orientazio-aldia aitortzen da. Horrela, doktoretza lortu ondoren luzatu ahal izango da, kontratatutako ikertzailearen doktoretza osteko orientazioa bermatzeko. Nolanahi ere, gehieneko iraupena 4 urtekoa da, edo 6 urtekoa desgaitasunen bat izanez gero.
- Aukera-berdintasuna: hautaketa-prozesuetan genero-joerak ezabatzeko mekanismoak ezartzen dira, eta aukera-berdintasuna bermatzen da kontziliazio beharrengatik edo antzeko arrazoiengatik baimenak behar dituztenentzat.
- Etenak eta luzapenak: Kontratuaren iraupenaren zenbaketa eteten duten egoerak zehazten dira, hala nola amatasunarekin edo aitatasunarekin lotutako baimenak eta doktorego-tesiaren zuzendaritzari buruzko erreklamazioak.
- Lan-ingurune segurua: Ingurune inklusibo eta seguruetan lan egiteko eskubidea ezartzen da, jazarpenaren aurkako protokoloak ezarriz.

([Informazio gehiago](#))

Gogorarazi nahi dugu UPV/EHUn kolektibo honen soldatak aipatutako estatutuan ezarritakoak baino handiagoak direla, sinatu genituen bi akordioen ondorioz ([lehenengo akordioa](#), [bigarren akordioa](#)). Nolanahi ere, oraindik badago hobetzeko tarte langile horientzat, eta lanean diardugu etorkizuneko errektoretza-taldeak kolektibo honen soldata-igoerari dagokionez azaldu duen konpromisoa ahalik eta lasterren gauzatu dadin, bai eta beste neurri batzuk ere praktikara eramateko: matrikularen ordainketaren salbuespena, euskalduntze-, mugikortasun- eta ikerkuntza-deialdietan zein formazio-programa guztietan parte hartzeko eskubidea izatea,...